

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

2016rako udal aurrekontuko kredituak aldatzeko 18/2016 zenbakidun espedientea, sarrerengatiko kredituak gaitzeagatik eta kreditu gehigarriak emateagatik. Behin betiko onarpena. (Espedientea: H16-074)

Udalbatzarrak 2016ko ekainaren 29 egunean egin zuen Osoko Bilkuran hartu zuen 2016rako udal aurrekontuko kredituak aldatzeko 18/2016 zenbakidun espedientea, sarrerengatiko kredituak gaitzeagatik eta kreditu gehigarriak emateagatik, hasierako izaeraz onartu zuen. Jende aurrean ikusgai egoteko epea igaro da eta horren barruan ez denez erreklamaziorik aurkeztu, aipatutako erabakia behin-betikoa bihurtu da, Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauko 15.1 artikuluan xedatutakoarekin bat.

Aipatutako otsailaren 9ko Foru Arauko 15.3 artikuluan aurreikusitakoa betez, behin-betiko bihurtu den erabakia oso-osorik argitaratzen da eta argitaratua izan ondoren sartuko da indarrean.

Behin behineko erabakiak, hitzez hitz transkribatua, honako hauxe dio:

“2016ko udal aurrekontuko 18/2016 zenbakidun kredituen aldaketa espedientea, sarrerengatiko kredituak gaitzeagatik eta kreditu gehigarriak emateagatik. (Espedientea: H16-074).

Hezkuntza, Berdintasun eta Gazteria Arloak eskatuta, Ogasun eta Ondare Arloan izapidetuta ari da espedientea 2016ko udal aurrekontuko kredituen aldaketa espedientea, sarrerengatiko kredituak gaitzeagatik eta kreditu gehigarriak emateagatik, hain zuzen, 18/2016 zenbakia duena.

Hezkuntza, Berdintasun eta Gazteria Arloko Zinegotzi Ordezkariek 2016ko ekainaren 23 eguneko memorian adierazi du ezen:

“2016ko aurrekontu ekitaldi hasieran, Lanbide Heziketako Udal Ikastetxeko edota zentroko programaren kasuan, bakarrik aurreikusi egin zen zuzkidura 2016ko ekainaren 30era arte, hori baitzen aurreikusitako data zentro hori sartzeko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari mendeko zentro publikoen sare barruan izango baitzen 2015-2016 ikasturte amaiera aurretik.

2016ko ekainaren 13an udal aretoetan bilera bat egin da Eusko Jaurlaritzako orderkariekin (M^a Jesús Aztiria Aguirre, Javier Sanchez de la Fuente eta Josu Aguirre Goitia), non aztertu den dokumentu honen ekudia: Gobernu Kontseiluak onartutako “Euskadiko Autonomia Erkidegoaren eta Audio Udalaren arteko hitzarmena IES Udal Audio Bigarren Hezkuntzako ikastetxearen titulartasuna eskualdatzeko eta sartzeko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko hezkuntza zentroen sarean”. Hori egin ostean argi geratu da Audio Udalak hartu behar duela erabakia zentroa ostetzen den eraikina kokatzen deneko erregistro finkaren udalaren herri jabariaren atxikipena kentzeko eta ondasun higieezin hori doan lagatzekoa eta kargaz libre; hori egiteak suposatzen du gutxienez ere izapideetako 6 hilabete.

Horregatik, indarrean darrai Audio Udalak eta Euskadiko Autonomia Erkideko Administrazio Orokorraren arteko Lankitza Hitzarmenak, 2001eko azaroaren 14an Gasteizen sinatutakoak, finantzatuta Audio Udalarik Euskadiko Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren Legean erabakitako zenbatekoan, hau da, baimendutako irakaskuntza mailetak Hezkuntza Kontzertatutako modulo osoarekin alderatuta berdina dena, xedetuta langile irakasle eta ez irakasleen gastuetara, mantenimendu gastuetara, hala nola modulu barruan sartutako beste edozeinetarako.”

Emandako diru-laguntzak alda dezake gastuen egoera 1.476.740,98 euroko guztirako zenbatekoz, hots emaniko diru-laguntzaren baliokidea, Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauko 31. Artikuluak erabakita dakarrenaren arabera.

Hala ere, beharrezkoa da igotzea 442.747,30 euro kreditu gehigarria ematearen bitartez, 2015eko abenduaren 31ko diru-zaintzako gerakin orokorraren kargutan.

Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru arauan erabakita dakarrenarekin bat, 2016rako udal aurrekontua alda daiteke, gerago jasota dagoen zehaztasunaz, honegatik:

1. Sarrerengatiko kredituak gaitzeagatik: Foru Arauak, bere 31. Artikuluan, aukera ematen du 2016rako udal aurrekontua aldatzeko, diruz-lagundutako gastua finantzatuko duen aurrekontu-partidan gastuetako aurrekontua gehituta.

Diru-sarrerak xede eta helburu zehatza du, finalista da, beraz, egingo den gastuak, diru-sarrei lotutako gastuen izaera edukiko du.

2. Kreditu gehigarriak emateagatik: Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauko 34. artikulua aurreikusten duenez, kreditu gehigarria emateko izapideari eutsiko zaio, zainpeturiko ordainketa krediturik eduki gabe edo, kreditua egonaz, berau askieza eta zabalezina bada, gasturen bat egin behar izan eta arau honetan araupetutako aldaketa erregimenaren bidez ezin bete denean, hurrengo ataletan adieraziko diren arauen arabera, zeintzuk jasota dagoen betearaziak izan direla.

Espedientean egiaztatuta geratu da hala gastuaren beharra nola finantzazioaren eskuragarritasuna.

Espedientea onartzeko eskumena Udaltzarraren Osoko Bilkurari dagokio, 3/2004 Foru Arauko 34.3 artikuluan eta Aurrekontua Betearazteko Udal Arauko 20-4. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Informazioa eskaini, erreklamazioak, publizitatea eta errekursoei buruz aipatu den Foru Arau horretako 15., 17. eta 18. artikulua dira aplikazioko.

Arestiko guztiagatik, Ogasun eta Ondare Arloko goi mailako teknikariak eta Alkatetzak proposatuta, Osoko Bilkurako Gaiaren Informazio Batzordearen aurretiko irizpenaz, Udaltzako Osoko Bilkurak

ERABAKI DU:

LEHENENGO. Onartzea 2016rako udal aurrekontuko kredituak aldatzeko 18/2016 zenbakia duen espedientea, kredituak gaitzeagatik, sarreren eta gastuen egoeretan aldaketa hauek txertatuta:

SARREREN EGOERA

KONTZEP-TUA	IZENDAPENA	HASIERAKO PREBISIOA (EURO)	ALDAKETA (EURO)	AMAIERAKO PREBISIOA (EURO)
410.04	Hitzarmena Eusko Jaurlaritza	0,00	1.476.740,98	1.476.740,98
SARRERAK ALDATUTA OROTARA		0,00	1.476.740,98	1.476.740,98

GASTUEN EGOERA

AURREKONTUKO PARTIDA	IZENDAPENA	HASIERA KREDITUA (EURO)	KREDITU GAITUA (EURO)	KREDITUA OROTARA (EURO)
0800-3241-130.00	Oinarrizko ordainsariak. Lan-legeko langileak. Soldata	304.877,00	304.877,00	609.754,00
0800-3241-130.01	Oinarrizko ordainsariak. Lan-legeko langileak. Antzinasuna	53.352,00	53.352,00	106.704,00
0800-3241-130.02	Osagarri gehigarria 1. seiurtekoa	8.068,00	8.068,00	16.136,00
0800-3241-130.03	Osagarri gehigarria 4. seiurtekoa	4.813,00	4.813,00	9.626,00
0800-3241-130.04	Osagarri gehigarria 5. seiurtekoa	2.366,00	2.366,00	4.732,00
0800-3241-130.06	ANO Antzinasuna Udalhitz. Lan-legeko langileak	2.788,00	2.788,00	5.576,00
0800-3241-130.05	Laneko plusask. Tutoretzak. Zuzenaritza karguak	22.768,00	22.768,00	45.536,00
0800-3241-163.04	Aldi baterako Norbanako Osagarria -ANO- Gizarte ekintza	823,00	823,00	1.646,00
0800-3241-131.01	Oinarrizko ordainsariak. Aldi baterako Lan legeko lengileak. Antzinasuna	59.976,00	59.976,00	119.952,00
0800-3241-131.02	Seiurteko Osagarri gehigarria	21.344,00	21.344,00	42.688,00
0800-3241-131.00	Oinarrizko ordainsariak. Aldi baterako Lan legeko lengileak. Soldata	853.860,00	853.860,00	1.707.720,00
0800-3241-160.01	Gizarte Segurantza	412.988,00	141.705,98	554.693,98
DIRU-SARRERA ALDAKETA GUZTIRA		1.748.023,00	1.476.740,98	3.224.763,98

BIGARRENA. Onartzea 2016ko udal aurrekontuko kredituak aldatzeko espediente, 18/2016 kreditu gehigarria emanez:

KREDITU GEHIGARRIAK

PARTIDA	IZENDAPENA	EURO ZENBATEKOA GEHIGARRIA
0800-3241-202.00	Makinaria, instalazioak eta erreminten alogera LHUI	250,00
0800-3241-211.00	LHUI eraikinaren konponketak, matentze-lanak	10.665,00
0800-3241-212.00	LHUI makinaria, konponketak, matentze-lanak	3.120,00
0800-3241-215.00	LHUI informatika prozesuen ekipoen matentze-lanak	1.500,00
0800-3241-219.00	LHUI gainerako ibilgetuaren mantentze-lanak	500,00
0800-3241-220.01	LHUI bulego materiala	2.175,00
0800-3241-220.02	LHUI prentaa, aldizkariak, liburuak	700,00
0800-3241-220.03	LHUI informatika materialea	2.410,00
0800-3241-221.01	LHUI energia elektrikoa	20.500,00
0800-3241-221.03	LHUI berokuntza	3.000,00
0800-3241-221.05	LHUI langileen aldagelak	250,00
0800-3241-221.09	LHUI garbiketa produktuak	600,00
0800-3241-221.88	LHUI beste hornidura batzuk	48.000,00
0800-3241-222.02	LHUI posta komunikazioak	100,00
0800-3241-222.05	LHUI informatika komunikazioak	6.875,00
0800-3241-224.00	LHUI aseguru primak	980,00
0800-3241-226.03	LHUI publizitatea eta progaganda	292,00
0800-3241-226.06	LHUI beste gastu soziokulturalak	600,00
0800-3241-226.88	LHUI beste eskola gastuak	366,20
0800-3241-226.92	HETEL ekarpenak	3.550,00
0800-3241-227.01	LHUI gabiketa kontratua	61.232,00
0800-3241-230.00	Dietak, lokomozioa eta langileen joan-etorriak	3.800,00
0800-3241-160.01	Gizarte Segurantza	271.282,10
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		442.747,30

FINANTZAZIOA

2015eko abenduaren 31an gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinaren aplikazioz

SUBCONCEPTO	IZENDAPENA	EURO ZENBATEKOA
870.01	2015eko abenduaren 31an gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinaren aplikazioz	442.747,30
GUZTIRA FINANTZAKETA		442.747,30

HIRUGARRENA. 2016ko Udal Aurrekontua Aldatzeko espedientea izapidetzean, Kontu Hartzaitzak esan du, 2016ko ekainaren 24 eguneko txostenean, aldaketa ez dela aintzat hartzen defizitaren eta aurrekontu-egonkortasunaren helburua lortzeko. ezta gastuaren araua betetzeko, Arabako Toki Erakundearen Aurrekontu-Egonkortasuna eta Finantza Jasangarritasunari buruzko abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauaren 7. artikulua 5. atalak xedatzen duen moduan (ekainaren 18ko 17/2014 Foru Arauak emandako idazketan). Gainera, Laudioko Udalak ez du zor bizirik, ezta zortzeko deirik, indarrean dagoen aurrekontuan. Beraz, Diruzaintzako gerakina kreditu gehigarriak finantzatzeko erabil daiteke, aipatutako 38/2013 Foru Arauaren 8.4 artikulua). Udal Kontu Hartzaitzaren txostenak dio, gainera, horren berri eman beharko zaiola Udalbatzarraren Osoko bilkurari eta gero, Arabako Foru Aldundira bidaltzea Osoko bilkurako akta, Kontu Hartzaitza organoko txostenarekin batera eta euskarri legez balio dezakeen gainerako dokumentazioarekin batera, hain zuzen ere, gaiaren arabera eskumena duen Toki Administrazio Sailera.

Hala eta guztiz ere, 7.3 artikulua aipatzen du aurrekontu egonkortasunaren helburua ez betetzea Diruzaintzako Gerakinekin inbertsio gastuak finantzatzeko. Kontu Hartzaitzaren txostenaren arabera, egoera hori ez dago espedientean, beraz ez da izapide hori bete behar.

LAUGARRENA. Laudio Udaleko 2016rako aurrekontu orokorra Aldatzeko 18/2016 zenbakia duen espedientea jendaurrean erakutsiko da hamabost (15) lan eguneko epean zehar, aldeztatik ALHAOn eta Udaletxeko edo Herriko Etxeko Iragarrien Oholean erabaki honen iragarria argitaratuko da, Osokoari erreklamazioa eta arrazoibideak aurkeztu ahal izateko.

BOSTGARRENA. Erabaki hau behin betiko onartutzat joko da jendaurreko erakusketa aldian zehar erreklamaziorik ez bada aurkezten eta indarrean sartuko, edo indarra hartuko du, Arabako Lurralde Historikoaren Toki Erakundeetako Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauko 16. artikuluan erabakitakoa bete ondoren. Erreklamaziorik badago, Osokoak hilabeteko epea izango du horiek ebazteko."

2016rako udal aurrekontuko kredituak aldatzeko 18/2016 zenbakidun espedientea, sarrengatiko kredituak gaitzeagatik eta kreditu gehigarriak emateagatik, behin betiko onartu duen erabakiaren aurka, interesatuek Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegiaren aurrean administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri dezakete zuzenean, ALHAOn erabaki horren argitalpen egunaren biharamunetik hasita bi (2) hileko epearen barruan.

Laudio, 2016ko uztailaren 28a

Alkatea

JON IÑAKI URKIXO ORUETA